

zakilixut

© Olariagak



«Apaiz abertzaleok ez goaz infernura»

■ "Jaungoikoa ez da existitzen. Existituko balitz ez lizkidake horrelako kartak bidaliko". Auzokideak maiz esaten du, musean ari dela.

Elizak berak ere maiz arinkeriaz jokutzen du gai honetan. Gaia okerrago dator bat egungo munduarekin garai batekoarekin baino. Elizak arazoari aurre egin beharko lioke.

■ Apaiz abertzaleak infernura joaten zarete. Sebastian apezpikuak fedean oinarrituta bidaltzen dituen kartetik ondoriozta liteke.

Hori espreski esan didate niri. Baina ez dut uste. Egungo Aita Santuak berak, integrista izanagatik ere, kolokan jartzen du infernua existitzen dela.

■ Apaiz izatea familiatik datorkizula diote: bi osaba sona handiko apaiz zenituen.

Baliteke. Gu hamabi anai-arreba ginen. Egungo bi seme-alabako familian jaio izan banintz, seguru asko ez nintzen apaiza izanen. Zirkulantziek guztiok baldintzatzen gaituzte. Garantzitsuena da egokitu zaizuna onartzea eta zeureganatzea, edo ez.

■ Zuen familia ez zen aber-

tzalea. Nondik datorkizu abertzaletasuna?

Italian demokristaua egin nintzen, eta bide horretatik, ezkerretik, heldu nintzen abertzale-tasunera. Nafarroan ohikoa da. EAJkoek ez dute hori ulertzen. Del Burgok dioen bezala, 'euzkadiako' hutsak dira.

■ Apaiz abertzaleak ez zoazte eliz-hierarkiaren zerura: seminarioko errektore zine-la, apezpiku eginen zintuztela zioten, baina gero...

Erroma askotan tronpatzen da, baina sekula ez nahi duen apezpiku motan. Gainera, ni oso libre jaio nintzen, libre bizi naiz, eta libre hilko naiz, eta apezpikuak ez dira libre. Nik ezingo nuke eskuindarrarena egin.

■ Seminarioaren hondortzea leporatu zizuten. Zer gertatu zen?

Kontzilioarekin Joan XXIII.a, bere hitzetan, «leihoak zabaltzen eta haize freskoa sartzen uzten» saiatu zen. Elizan, baina, haize freskoak beti katarroak eragiten ditu. Gurean kontzilioa ez zuten ulertu, ezta indarrean jarri ere.

■ Konponbiderik al du egungo bokazio krisiak?

KATE MOTZEAN

Juan Kruz Lakasta

JESUS LEZAIUN

APAIZA

Arizala (Nafarroa), 1925. Teologia doktore, politika analista: elizgizon abertzale. Gaurkoa bezalako egun batean, Elizaren zein Euskal Herriaren egoerek mintzen dute. «Bi gaiokin oso minbera naiz», aitortzen du.



«Libre jaio nintzen, libre bizi naiz eta libre hilko naiz»

Ez, baldin eta azpiegitura zein ideologia aldaketa sakona egin ez bada. 75 urterekin ni ez noa inora, baina 35 banitu agian neure buruari zenbait gauza planteatuko nizkioke.

■ Zelibatoa baztertuta, emakumeak apaiztuz agian...

Jakina. Baina horiez haratago, ezinbestean, egunen batean, herri kristauak berak egin beharko ditu eukaristiak, apaiz,

apezpikuen beharrik gabe. Elizak ez du oraindik modernitatea onartu.

■ Teologia Dogmatikoko irakasle izan zara. Eliza perfektua dela da dogmetako bat. Gezurra dirudi, besteak beste Escrive de Balaguer santu izendatuta.

Eliza beste edozein botere bezain inperfektua da. Bere burua sakratutzat duenez, gehiago, ez baitu zuzenketarako bitartekorik.

■ Beste dogma bat: errealitate metafisikoa errealitate fisikoren gainetik dago. Euskal gatazka ez da metafisikoa izanen?

Ez. Gakoa, Madrilgo Ggobernuaren, oso espainiarrak sentitzen direnen inposaketa antide-mokratikoa da. Sebastian apezpikuaren liburutik gehien mindu nauena, Aznarren diskurtso horrekin erabat bat datorrela da.

■ Konponbidea, miraria?

Bai, batez ere abertzale guztiek jarrera aldatzen ez badute. Bat egin beharko lukete, eta ETak behin betiko menia eman beharko luke. Bortitza naizela diote, ETaren teologoa naizela, baina, barrutik, betidanik lan egin izan dut horren alde. ETak, egun, politikoki batez ere kalte egiten die gertuen dituenen. EAJk ere asko aldatu beharko luke. Egungo 'mitxelinek' agintzen dute, eta Ezker Abertzalearen jazarpenean laguntzen ari dira.



Megadenda, zure aukera musika eta liburutan

arriaga

Gasteiz

bertso-hop

Irun

bilintx

Donostia
Tolosa
Bergara

herriak

Bilbo

mattin

Baiona

ramos

Donostia

urretxindorra

Bilbo

xalbador

Iruña

xalem

Iruña